


Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak %0,5 igo ziren 2007ko martxoan

Azken hamabi hilabeteetan (2006ko martxotik 2007ko martxora) eraikuntzaren kostuak %5,7 igo ziren.

EUSTATen datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntzaren kostuen indizeak %0,5eko igoera izan zuen 2007ko martxoan, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %5,7raino igo zen.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2007



(*) Hazkundera martxoko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2007ko martxoan lanekuaren kostuak ez zuen inolako aldaketarik izan (%0,0), aitzitik lehengaien kostuek %0,7ko igoera izan zuten.

Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek bilakaera berbera izan zuten; bai eraikuntzak bai obra zibileraiko lehengaien kostuek %0,7ko gehikuntza izan zuten aurreko hilabetearen aldean. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran, argi ikusten da antzeko joerak izan dituztela baina ezberdintasun batzuekin: eraikuntzako lehengaien kostuak %7,1 gehitu ziren, eta obra zibilekoak %5,4.

Martxoan, prezioen hazkunde handienak, besteak beste, ondoko hauetan kontsumitutako lehengaietan eman da: petrolioaren eratorriak (%4,6), asfaltozko produktuak (%4,0), burdina eta altzairua (%3,1), burdindegiko gaiak (%2,4) eta beira (%1,6). Ondoko hauetako lehengaien

prezioak, berriz, gutxitu egin dira, besteak beste: kare, igeltsu eta eskaiolan (-%1,7), egiturak eta galdaragitza (-%1,0), lehergaiak eta gasak (-%0,2) eta erauzketa-agregakinak (-%0,1).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: burdina eta altzairua (%24,6), metalezko tutueria (%18,5), beira (%17,3) eta energia elektrikoa (%16,6). Bestalde, ondoko hauen lehengaien urte arteko prezioak (2006ko martxotik 2007ko martxora) murriztu egin dira: petrolioaren eratorriak (-%6,4) eta asfaltozko produktuak (-%4,9).

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2007ko martxoa.

GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000=100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	130,3	0,5	5,7	2,9
ERAIKINAK	130,6	0,5	6,0	2,9
OBRA ZIBILA	129,5	0,4	4,7	2,6
LEHENGAIEN KOSTUA	127,3	0,7	6,8	2,6
ERAIKINAK	127,8	0,7	7,1	2,7
OBRA ZIBILA	125,2	0,7	5,4	2,1
LAN-ESKUAREN KOSTUA	137,4	0,0	3,5	3,5

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp